


GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA PEDAGOGIAKO GRADUA



III. MODULUA: HEZKUNTZA PROZESUEN OINARRIAK

Donostia - San Sebastián
2025/2026

AURKIBIDEA


1. III. MODULUA ETA DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)	3
2. III. MODULUKO KONPETENTZIAK ETA IKAS-EMAITZAK	4
3. III. MODULUKO IRAKASGAIEIEN GIDAK	6
4. III. MODULUKO DILANAREN GIDOIA ETA KRONOGRAMA	7
5. III. MODULUKO DILANAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	10
6. ERANSKINA: III. MODULUKO DILANAREN TALDE-FITXA	13

1. III. MODULUA ETA DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

Ikasleek, Gizarte Hezkuntzako Gradua titulazioaren (<https://labur.eus/0gXOi>) eta Pedagogiako Gradua titulazioaren (<https://labur.eus/2wj56>) bigarren mailako lehen lauhilekoan, taldeko eta diziplinarteko lan bat egin behar dute "III. Modulua: Hezkuntza Prozesuen Oinarriak" izeneko moduluko bost irakasgaietan ikusitako eduki teoriko-praktikoa erlazionatuz eta aplikatuz (ikus 1. Irudia). Taldeko eta diziplinarteko lan horri Diziplinarteko Lana (DILAN) esaten zaio.

1. Irudia

III. Moduluko irakasgaiak



Gida hau, DILANa egiteko eta ebaluatzeko jarraibide espezifikoekin, III. Moduluko irakasgaietako irakasleek adostu dute eta bere metodologia bat dator UPV/EHuko IKD i3 (<https://labur.eus/im2zn>) hezkuntza ereduarekin, UPV/EHuko zeharkako gaitasunen katalogoarekin (<https://labur.eus/fgGp7>), eta EHUagenda 2030eko (<https://labur.eus/5gi5S>) Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH): 3. Osasuna eta ongizatea; 4. Kalitatezko hezkuntza; 5. Genero berdintasuna; 10. Desberdintasunak murriztea; 16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak; eta, 18 edo 17+1. Hizkuntza eta kultura aniztasuna.

**i3 ikaskuntza
ikerketa
iraunkortasuna**

IKD = Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa.

i3 = ikaskuntza x ikerkuntza x iraunkortasuna.



2. III. MODULUKO KONPETENTZIAK ETA IKAS-EMAITZAK

Gizarte Hezkuntzako Gradu titulazioaren (<https://labur.eus/O4zl7>) eta Pedagogiako Gradu titulazioaren (<https://labur.eus/1dpK1>) txosten egiaztatuarekin bat etorriz, III. Moduluan 1. Taulan zehazten diren konpetentziak (K), espezifikoak (E) zein zeharkakoak (Z), eta ikas-emaitzak (IE) garatzen dira.

1. Taula

III. Moduluko konpetentziak eta ikas-emaitzak

KODEA /ERREFERENTZIA	KONPETENTZIAK	IKAS-EMAITZAK
M033C1 M03CM01	K1E. Hezkuntza prozesuetan diharduten eta jarduten duten pertsonak, taldeak, testuinguruak eta hezkuntza erakundeak aztertzea, ezagutza teorikoaren esparruan interpretatuak izateko.	IE1. Irakasteko eta ikasteko prozesuen osagai didaktikoak identifikatzea.
M033C2 M03CM02	K2E. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak aztertzea testuinguru formalean eta ez formalean, ikuspegi inklusiboak eta desberdintasunak gaunditzekoak erabiltzea.	IE2.1. Gizarte eta hezkuntza prozesuetan inklusibitate irizpideekin jardutea. IE2.2. Gizarte eta hezkuntza prozesuetan genero dimentsioarekin jardutea.
M033C3 M03CM03	K3E. Hezkuntza eta gizarte orientazioko prozesuen suposizio teoriko-praktikoak eta oinarritzko dimentsioak deskribatzea.	IE3. Hezkuntza eta gizarte orientazioko prozesuaren osagaiak identifikatzea.
M033C4 M03CM04	K4E. Gizarte eta hezkuntza prozesuen oinarri psikologikoak eta psikopedagogikoak zehaztea.	IE4. Gizarte eta hezkuntza prozesuetan eragina duten aldagai psikologikoen sintesia egitea.
M033C5 M03CM05	K5E. Hezkuntza erakundearen egitura eta dinamika interpretatzea eta hezkuntza prozesuetan duten eragina giza garapenaren ikuspegitik.	IE5. Gizarte eta hezkuntza prozesuak eraikitzen eta kudeatzen laguntzen duten antolamendu alderdiak zehaztea.
M033C6 M03CM06	K6Z. Gizarte eta hezkuntza gaiei buruzko ideiak, argumentu osagarriak eta abar jendaurrean ahoz komunikatzea.	IE6. DILANA jendaurrean ahoz aurkeztea, taldearen barruan eta entzuleen aurrean jarrera egokiak mantenduz.
M033C7 M03CM07	K7Z. Txosten idatziak egitea, ezarritako irizpide formalak errespetatuz.	IE7. Hezkuntza prozesu jakin baten azterketa egitea, alderdi didaktikoak, psikologikoak, antolakuntzakoak, soziologikoak eta orientaziokoak kontuan hartuta.
M033C8 M03CM08	K8Z. Banakako zein taldeko ikaskuntza jarduerak eta zereginak egiteko jarrera positiboa erakustea.	IE6. DILANA jendaurrean ahoz aurkeztea, taldearen barruan eta entzuleen aurrean jarrera egokiak mantenduz. IE7. Hezkuntza prozesu jakin baten azterketa egitea, alderdi didaktikoak, psikologikoak, antolakuntzakoak, soziologikoak eta orientaziokoak kontuan hartuta.
EDINSOST	GARA 1 – Ezagutzaren testuinguru kritikoa, gizarte, ekonomia eta ingurumen arazoei, tokiko arazoei eta/edo arazo globalei loturak ezarri.	K1.HO.1.2. Tokiko nahiz mundu osoko gizarte, ekonomia eta/edo ingurumen arazoetan inplikaturako kausa, ondorio eta subjektu nagusiak ezagutzen ditu. K1.HO.2.1. Iraunkortasunaren dimentsioei buruzko gogoeta kritikoa egiten du bere lanbide eremuarekin lotutako egoera baten azterketan.
	GARA 2 – Baliabideen erabilera iraunkorra eta natura eta gizarte ingurunearen gaineko inpaktu negatiboen prebentzioa.	K2.HO.1.1. Oinarritzko ezagutzak ditu hezkuntza jarduerak gizarte, ekonomia eta ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzeko. K2.HO.1.5. Bere lanbide eremuko proiektuetan justizia soziala baloratzeko irizpideak ezagutzen ditu (adibidez: ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.). K2.HO.2.1. Badaki kritikoki baloratzen hezkuntza jarduerak gizarte, ekonomia eta ingurumenean izan ditzaketen eragin negatiboak. K2.HO.3.3. Gai da bere lanbide eremuko proiektu batean ideia eta irtenbide berriak emateko, jasagarriagoa izan dadin.
	GARA 4 – Iraunkortasunaren balioekin lotutako printzipio etikoak aplikatzea portaera pertsonaletan eta profesionalean.	K4.HO.1.1. Bere lanbide eremuan iraunkortasunarekin zerikusia duten arazo etikoak ezagutzen ditu (adibidez: desberdintasuna, kontsumismoa, diskriminazioa, etab.). K4.HO.2.1. Gai da iraunkortasunaren printzipio etikoek bere esparru profesionalean dituzten inplikazioak identifikatzeko eta kritikoki baloratzeko.

Era berean, III. Moduluan zein hura osatzen duten irakasgaietan, zeharka garatzen dira 1. Taulan zehazten diren gaitasunak (GARA) eta ikas-emaitez edo konpetentzi holistikoa menderatzeko mailak (HO.1. JAKIN; HO.2. NOLA JAKIN; eta, HO.3. FROGATU + EGIN), EDINSOST Proiektuko hezkuntza titulazioetarako jasangarritasunerako gaitasunen maparen arabera: <https://labur.eus/3DspF>

Hori guztia, 2022-2023 aldirako (i3kd22-45), UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE-HELAZ) diruz lagundutako "Moduluak Hezkuntzan i3" izeneko Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuan (HBP) egindako lanaren emaitza da. Proiektu horretan, batez ere, UPV/EHUko hiru Campusetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) Hezkuntza Fakultateetako gradu, modulu eta minorren koordinatzaileek parte hartu dute.



3. III. MODULUKO IRAKASGAIEEN GIDAK

Jarraian, irakasgai bakoitzak III. Moduluko DILANarekin duen erlazioa labur-labur deskribatzen da, eta irakasgai bakoitzaren gidarako esteka eranstean da (gidak ere irakasgai bakoitzaren eGelan eskuragarri daude).



Didaktika Orokorra irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dute irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen zein gizarte eta hezkuntza proiektu eta/edo esku-hartzeen azpian dagoen curriculum (helburuak, baliabideak, plangintza, inplementazioa, ebaluazioa eta berrikuntza).

*Irakasgaiaren gida [URL](#) honetan dago eskuragarri.

*Irakasgaiaren irakasleak honako hauek dira: [Jon Sarasola Álvarez](#) (31. taldean) eta [Pello Aramendi Jauregui](#) (31. eta 32. taldeetan).

Gizarteratze eta Baztertze Prozesuak irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dituzte: eraldaketa ekonomikoa (berregituraketa ekonomikoa eta globalizazioa) eta Ongizate Estatua; hau da, desberdintasunarekin, pobreziaarekin, marjinazioarekin, generoarekin, eta abarrekin lotutako inklusio eta baztertze prozesuak, bai eta estrategia politikoak eta sozioheitzailak ere baztertutako kolektiboak gizarteratzeko eta/edo bazterketa arriskuan dauden kolektiboak prebenitzeko FOESSA adierazleen arabera.

*Irakasgaiaren gida [URL](#) honetan dago eskuragarri.

*Irakasgaiaren irakaslea honako hau da: [Eider Gamboa Ruiz de Eguílaz](#) (31. eta 32. taldeetan).



Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dituzte: gizarte eta hezkuntza orientaziorako tresnak (elkarrizketa, behaketa...); gizarte eta hezkuntza orientazioaren gaitasunak, funtzioak eta rolak (autoestimua, gaitasun sozioemotionalak...); gatazkak eta jazarpenak kudeatzeko jarraibideak eta estrategiak; gizarte eta hezkuntza orientaziorako prebentzio eta esku-hartze programak; etab.


*Irakasgaiaren gida [URL](#) honetan dago eskuragarri.

*Irakasgaiaren irakaslea honako hau da: [Marian de la Caba Collado](#) (31. eta 32. taldeetan).

Hezkuntzaren Psikologia irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dituzte irakasteko eta ikasteko prozesuen oinarri diren ereduak (konduktismoa, kognitibismoa, konstruktibismoa...), bai eta pertsona barruko faktoreak (irakaskuntza-ikaskuntza estrategiak, adimen anitzak eta emozionala, motibazioa...) eta pertsonen artekoak ere (bizikidetzak, hezkidetzak...), horietan zein gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeetan eragiten dutenak.

*Irakasgaiaren gida [URL](#) honetan dago eskuragarri.

*Irakasgaiaren irakasleak honako hauek dira: [Eider Oregui González](#) (31. taldean) eta [Alazne González Santana](#) (32. taldean).



Prozesuen, Zerbitzuen eta Hezkuntza Erakundeen Antolakuntza eta Kudeaketa irakasgaiaren eduki teoriko-praktikoari esker, ikasleek DILANean identifikatu eta aztertu ahal izango dituzte gizarte eta hezkuntzako erakundeen eta zerbitzuen antolakuntzaren egitura (funtzioak, proiektuak, planak...) zein kudeaketaren dinamika (lidergoa, giroa...).

*Irakasgaiaren gida [URL](#) honetan dago eskuragarri.

*Irakasgaiaren irakaslea honako hau da: [Jon Mikel Luzarraga Martín](#) (31. eta 32. taldeetan).

Azken batean, diziplinarteko identifikazio eta azterketa honen azken helburua da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen zein gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeen diseinuetaz, egokitzen eta hobekuntzetaz gogoeta sustatzea.

*III. Moduluko koordinatzailea honako hau da: [Eider Oregui González](#).

4. III. MODULUKO DILANAREN GIDOIA ETA KRONOGRAMA

Atal honetan, III. Moduluko DILANaren gidoia eta kronograma zehazten dira.

III. Moduluko DILANak, 20-25 orrialde inguru izango ditu eta honako atal hauek izan beharko ditu (orientabide gisa, orrialde kopurua eta edukia ere zehazten dira):

- ❖ **Azala:** HEFA Fakultatearen logoa, moduluaren izena, aukeratutako filmaren izenburua, ikasturtea, taldearen izena eta taldekideen izen-abizenak jasotzen dituen orrialdea, orrialde 1.
- ❖ **Aurkibidea:** DILANaren atal nagusietako orrialdeen zenbakiak jasotzen dituen orrialdea, orrialde 1.
- ❖ **Sarrera:** III. Moduluko DILANaren xedea, hautatutako filma, hautaketaren arrazoiak eta idatzizko lanaren egituraketa jasotzen duen sarrerako azalpen labur bat, orrialde 1 inguru.
- ❖ **Testuinguraketa:** filma testuinguru soziohezitzaile jakin batean kokatzen duen testuinguraketa, 2 orrialde inguru.
- ❖ **Filmaren analisia:** ikuspegi integratzaile eta diziplinartekotik, filmean identifikatutako III. Moduluko irakasgaien eduki teoriko-praktikoen analisiaren bilketa, 12 orrialde inguru.
- ❖ **Ondorioak eta hobekuntza proposamenak:** filmaren analisiaren ondorio nagusiak zein diseinu, egokitzapen eta/edo hobekuntza proposamen posibleen jasoketa, 6 orrialde inguru.
- ❖ **Erreferentzia bibliografikoak:** soilik DILANean aipatutako informazio iturrien erreferentzien bilketa, APA estiloa betez, 2 orrialde inguru.

Estiloaren eta formatuaren beste jarraibide batzuk:

- Marjinak 2,54 puntura (goikoa, behekoa, ezkerrekoa eta eskuinekoa).
- Orrialdeetan zenbakiak txertatu (beheko aldean, eskuinean).
- Letraren estilo lehenetsia (adibidez: Times New Roman eta/edo Calibri).
- Letraren tamaina 12 puntura eta justifikatuta.
- Lerroarte 1,15 puntura eta paragrafo bakoitzaren ostean tarte utzi.

Plagioa detektatzen bada edo horren susmoa badago, UPV/EHUren protokoloa aplikatuko da (<https://labur.eus/jrdG7>). Horrek 0 puntuko kalifikazioa ekarriko luke jardura edo lan akademikoaren azken bertsioan hautematen bada; beraz, gomendatzen da esteka honen jarraibideak hasieratik jarraitzea plagioa saihesteko eta zintzotasun akademikoa betetzeko: <https://labur.eus/uZifo>

Horregatik, oso garrantzitsua da irudiak, taulak eta erabilitako informazio iturriak behar bezala aipatzea eta erreferentziatzea. Horretarako, esteka hauetan agertzen diren APA estiloaren (7. edizioa) adibide zehatzak kontsultatzea gomendatzen da:

<https://labur.eus/1F1U0>

<http://hdl.handle.net/10810/42398>

Halaber, adimen artifizialaren (itzultzaileak barne) erabilera aitortzea eta justifikatzea beharrezkoa da honako irizpide hauek erabiliz: <https://labur.eus/LLDHk>

Gramatika, adierazpena edo ortografia akats posibleak berrikustea, eta hizkuntza inklusiboaren eta ez diskriminatzailearen erabilera babestea garrantzitsua da ere. Gida hurrengo estekan eskura daiteke: <https://labur.eus/Sxj8Y>

III. Moduluko DILANaren kronograma (ikus 2. Taula) 15 astetan banatzen da, ondorengo estekan kontsulta daitekeen ikasturteko egutegiarekin bat etorrita: <https://labur.eus/a74ub>

2. Taula

III. Moduluko kronograma

ASTEA	KRONOGRAMA
1	DILANaren azalpena.
2	
3	DILANerako talde-fitxaren entrega (Word formatuan).
4	DILANerako tutorearen esleipena.
5	DILANerako esleitutako tutorearekin lehenengo tutoretza egitea.
6	
7	
8	Etengabeko ebaluazioari uko egiteko idatziaren entrega (hala badagokio).
9	DILANaren zirriborro bertsioaren entrega (Word formatuan).
10	Tutorearen <i>feedback</i> eta <i>feedforward</i> DILANaren zirriborroarari buruz.
11	
12	
13	
14	DILANaren azken bertsioaren entrega (PDF formatuan).
15	DILANaren ahozko aurkezpena.

Ikasturteko **1. astean** edo **2. astean**, III. Moduluko koordinatzailea ([Eider Oregui González](#)) gelara sartuko da DILANa azaltzera eta horren inguruan egon daitezkeen zalantzak argitzera. III. Moduluko koordinatzailearen harremanetarako datuak eskuragarri daude "3M: DILAN / AIM" eGelan eta esteka honetan: <https://labur.eus/wvHMu>

Ikasleek **3. asteko** ostiralera arte denbora izango dute lantaldeak eratzeko eta DILANean aztertu beharreko film bat hautatzeko. Horretarako, "Talde-fitxa" bete beharko dute (ikus Eranskina) eta eGela bidez entregatu beharko dute. "Talde-fitxa" eskuragarri dago eGelan, Word formatuan (.docx), datuak bete eta entrega errazteko. Ikasleei eskatzen zaie, identifikazioa errazte aldera, dokumentua taldearen izenarekin izendatzea eGelara igo aurretik (nahikoa da kide batek dokumentua entregatzea).

Talde-fitxa guztiak jaso ostean, **4. astean**, tutore bat esleituko da talde bakoitzari, tutoreak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipena egin dezan. DILANa egitean sortzen diren zalantza guztiak esleitutako tutoreari kontsulta dakizkioke. Horregatik, ikasleei eskatzen zaie esleitutako tutorearekin harremanetan jartzea, beranduenez **5. astean**, DILANari buruzko lehen jarraibideak eta orientabideak jasotzeko. eGelan eta hurrengo estekan, III. Moduluko irakasleen tutoretzen ordutegia kontsulta daiteke: <https://labur.eus/ycBUM>

Hala ere, DILANari aplikatu beharreko eduki teoriko-praktiko bati buruzko kontsulta espezifiko bada, dagokion irakasgaiaren ardura duen irakasleari galdetzea gomendatzen da, tutoretza ordutegian edo ikasgelan DILANari zuzendutako saioetan. Horregatik, DILANa egiten den bitartean, 2 orduko 3 saio egingo dira III. Moduluko irakasgai bakoitzean. DILANari erreserbatutako saioak ezagutzeko, irakasgai bakoitzaren kronograma espezifiko kontsultatzea gomendatzen da. III. Moduluko irakasgaien ordutegia helbide honetan kontsultatu daiteke <https://labur.eus/Tw7nm> eta ebaluazioaren egutegia <https://labur.eus/6PqNF> helbidean.

Ikasleren batek etengabeko ebaluazioari uko egin nahi badio, dagokion idatzia sinatuta entregatu beharko du (eta eskuragarri dagoena esteka honen beheko aldean: <https://labur.eus/6PqNf>) ikasturteko **8. astea** amaitu baino lehen (azaroko lehen astea). Ikasleek aukeratzen duten ebaluazio-sistema alde batera utzita (etengabekoa eta/edo amaierakoa), DILANA taldean egin ahal izango dute (eta, hala, gomendatuko zaie).

9. asteko ostiralean, talde bakoitzak DILANaren zirriborro bertsioa entregatu beharko du, Word formatuan (.docx), eGela bidez. DILANaren zirriborroa ezarritako epean ez aurkezteak 0,2 puntu gutxiago ekarriko du idatzizko lanaren azken kalifikazioan. Ikasleei eskatzen zaie, identifikazioa errazte aldera, dokumentua taldearen izenarekin izendatzea eGelara igo aurretik (nahikoa da kide batek dokumentua entregatzea).

10. astean esleitutako tutoreak zirriborroa berrikusiko du, DILANA behar bezala egituratzen ari den egiaztatzeko (*feedback*) eta hobekuntza orientabideak emateko (*feedforward*).

DILANaren azken bertsioa PDF formatuan entregatu beharko da eGela bidez, asko jota, **14. aste**ko ostiralean. Ezarritako epean ez aurkezteak 0 puntuko azken kalifikazioa ekarriko du idatzizko lanean. Ikasleei eskatzen zaie, identifikazioa errazte aldera, dokumentua taldearen izenarekin izendatzea eGelara igo aurretik (nahikoa da kide batek dokumentua entregatzea).

15. astean ez da dozentziarik egongo, aste honetan DILANaren ahozko aurkezpena egingo da taldeka (talde bakoitzak 15 minutu izango ditu DILANA aurkezteko). eGelan, 4. astetik aurrera (tutorearen esleipenarekin batera), talde bakoitzaren aurkezpenaren eguna eta ordua kontsultatu ahal izango da.

Aurkezteko hurrenkeran aldaketaren bat egin behar izanez gero, aldeztatik abisatzeko eskatzen dizuegu. Era berean, DILANA aurkezten ez duten taldeei eta/edo kideei ez zaie puntuaziorik emango (0,5 puntu).

5. III. MODULUKO DILANAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

15. astean ikasleei ondorengo gogobetetze inkestan sartzea eta betetzea eskatuko zaie (eGelan ere eskuragarri dago), honen helburua III. Moduluko DILANa baloratzea eta hobetzea da: <https://forms.office.com/e/TJGDRpggYy>

DILANak 1,5 puntuko balioa du guztira (puntu 1 idatzizko lanak eta 0,5 puntu ahozko aurkezpenak). Idatzizko lanaren balioa, lauhilekoan taldearen jarraipena egin duen tutoreak esleituko du; ahozko aurkezpenaren balioa, berriz, III. Moduluko irakasleek epaimahaiko kide gisa esleitutako puntuazioen batez bestekoa izango da. DILANaren azken balioa (0 eta 1,5 puntu artekoa) III. Moduluko irakasgai bakoitzaren amaierako kalifikazioaren %15 izango da.

DILANaren ebaluazio-irizpideak (EI) honako hauek dira:

- **EI1.** Hainbat diziplinako argudioak erabiltzea hezkuntza prozesuen azterketan.
- **EI2.** Hezkuntza prozesuen osagai didaktikoen, soziologikoen, psikologikoen, antolakuntzako eta orientaziokoen identifikazio maila.
- **EI3.** Txostenak diziplinarteko jarduerari buruz aurkezten duen gogoeta maila.
- **EI4.** Txostenak irizpide akademiko formaletara egokitzea.
- **EI5.** Talde barruko lankidetzeta eta lan autonomoaren maila.
- **EI6.** Komunikazio gaitasunaren maila (adibidez: diskurtsoaren antolamendu maila; estresaren kontrola; entzuleei egokitzea; espazioaren komunikazio erabilera; eta erabilitako baliabideen aniztasuna eta berrikuntza).

Ikasleren batek aurretik III. Moduluaren DILANa egin badu edo III. Modulua osatzen duten irakasgai guztietan matrikulatu ez bada (ikus 3. Taula), matrikulatuta dituen irakasgaien ardura duten irakasleekin harremanetan jartzea eskatzen da ebaluazio-sistema ezagutzeko eta horri buruzko zalantzak argitzeko.

3. Taula

III. Moduluko salbuespenak

Matrikulatutako III. Moduluko irakasgaien kopurua	III. Moduluko irakasgaien kopurua etengabeko ebaluazio-sisteman	III. Moduluko irakasgaien kopurua amaierako ebaluazio- sisteman	Une honetan, III. Moduluen DILANa egitea dagokit?
5	5	0	Bai
	4	1	Bai
	3	2	Bai
	2	3	Ez
	1	4	Ez
	0	5	Ez
4	4	0	Bai
	3	1	Bai
	2	2	Bai
	1	3	Ez
	0	4	Ez
3	3	0	Bai
	2	1	Bai
	1	2	Bai
	0	3	Ez
2	2	0	Ez
	1	1	Ez
	0	2	Ez
1	1	0	Ez
	0	1	Ez

Lehen aipatutako ebaluazio-irizpideak baloratzeko, III. Moduluko errubrikan (ikus 4. Taula) deskribatutako adierazleak (A) erabiliko dira.

4. Taula

III. Moduluko errubrika

IDATZIZKO LANA (puntu 1)				
A1	DILANa egin izana justifikatzeko sarrera atal bat dute.	Bai	Bai, baina...	Ez
A2	Filma hautatzearen arrazoiak azaltzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A3	Hautatutako filma testuinguruan kokatzen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A4	Filman dauden hezkuntza prozesuak identifikatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A5	Identifikatutako hezkuntza prozesuak irakasgaien edukiekin erlazionatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A6	Irakasgaien edukiak elkarren artean erlazionatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A7	Filmaren azterketa xehatua egiten dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A8	Analisiaren ondorio nagusiak atera dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A9	Balioespen judizioak egiten dituzte, beren iritzia pertsonala justifikatuz eta barne hartuz	Bai	Bai, baina...	Ez
A10	Irtenbide posibleak, egokitzapenak, hobetu beharreko alderdiak edo esku-hartzeko alderdiak proposatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A11	Pedagogoaren eta gizarte hezitzailearen figura, rola edo eginkizuna azaltzen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A12	Moduluaren Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) kontuan hartzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A13	DILANak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan dituen inplikazioak adierazten dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A14	Egileak aipatzen dituzte APA estiloa erabiliz	Bai	Bai, baina...	Ez
A15	Erreferentzia bibliografikoak dituzte APA estiloa erabiliz	Bai	Bai, baina...	Ez
A16	Ideiak modu egituratu, koherente eta argian azaltzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A17	Hizkuntza inklusiboa eta ez diskriminatzailerak erabiltzen dute, akats ortografikorik eta gramatikarik gabe	Bai	Bai, baina...	Ez
A18	DILANa egiteko behar izandako denbora kudeatzen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A19	Taldean lan egiten dute modu kohesionatuan	Bai	Bai, baina...	Ez
A20	Tutoreak egindako iradokizunak barne hartzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
AHOZKO AURKEZPENA (0,5 puntu)				
A21	Aurkezpen argia eta koherentea izan da	Bai	Bai, baina...	Ez
A22	Filmeko eta/edo DILANeko ideia nagusiak identifikatzen edo laburbiltzen jakin dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A23	Moduluaren irakasgaiekin ezarritako erlazioa ikusi da	Bai	Bai, baina...	Ez
A24	Azaldutako ideiei buruzko iritzia edo balorazioa ematen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A25	Pedagogoaren eta gizarte hezitzailearen figura, rola edo eginkizuna azaltzen dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A26	Irtenbide posibleak, egokitzapenak, hobetu beharreko alderdiak edo esku-hartzeko alderdiak proposatzen dituzte	Bai	Bai, baina...	Ez
A27	Taldeko kideen arteko koordinazioa dago	Bai	Bai, baina...	Ez
A28	Aurkezpenaren formatua eta dinamika egokitzen jakin dute	Bai	Bai, baina...	Ez
A29	Aurkezpenerako ezarritako denborara mugatu dira.	Bai	Bai, baina...	Ez
A30	Jarrera positiboa eta errespetuzkoa erakutsi dute	Bai	Bai, baina...	Ez
*** Bai = 0,050 puntu; Bai, baina... = 0,025 puntu; Ez = 0,000 puntu				

5. Taulan ikus daiteke nola erlazionatzen diren elkarren artean III. Moduluko DILANaren gida honetan deskribatutako konpetentzia (K), ikas-emaizta (IE), ebaluazio-irizpide (EI) eta adierazle (A) guztiak.

5. Taula

III. Moduluko konpetentzien (K), ikas-emaizten (IE), ebaluazio-irizpideen (EI) eta adierazleen (A) erlazioa

3M: DILAN	K1E	K2E	K3E	K4E	K5E	K6Z	K7Z	K8Z	IE1	IE2.1	IE2.2	IE3	IE4	IE5	IE6	IE7	K1.HO.1.2	K1.HO.2.1	K2.HO.1.1	K2.HO.1.5	K2.HO.2.1	K2.HO.3.3	K4.HO.1.1	K4.HO.2.1	EI1 – EI3 (A1 – A13)	EI4 (A14 – A17)	EI5 (A18 – A20)	EI6 (A21 – A30)
K1E									X								X	X	X		X	X		X	X			
K2E										X	X						X	X	X	X	X	X	X	X	X			
K3E												X					X	X	X	X	X	X	X	X	X			
K4E													X				X	X	X	X	X	X	X	X	X			
K5E														X			X	X	X		X	X		X	X			
K6Z															X													
K7Z																X	X	X	X	X	X	X	X	X		X		X
K8Z															X	X											X	
IE1	X																X	X	X		X	X		X	X			
IE2.1		X															X	X	X	X	X	X	X	X	X			
IE2.2		X															X	X	X	X	X	X	X	X	X			
IE3			X														X	X	X	X	X	X	X	X	X			
IE4				X													X	X	X	X	X	X	X	X	X			
IE5					X												X	X	X		X	X	X	X	X			
IE6						X		X																			X	X
IE7							X	X									X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
K1.HO.1.2	X	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X		X									X			
K1.HO.2.1	X	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X		X									X			
K2.HO.1.1	X	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X		X									X			
K2.HO.1.5		X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X		X									X			
K2.HO.2.1	X	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X		X									X			
K2.HO.3.3	X	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X		X									X			
K4.HO.1.1		X	X	X			X		X	X	X	X	X	X		X									X			
K4.HO.2.1	X	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X		X									X			
EI1 – EI3 (A1 – A13)	X	X	X	X	X				X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X				
EI4 (A14 – A17)							X									X												
EI5 (A18 – A20)								X							X	X												
EI6 (A21 – A30)						X									X													

6. ERANSKINA: III. MODULUKO DILANAREN TALDE-FITXA

6. Taulan, III. Moduluko DILANaren talde-fitxaren eredua aurkezten da, ikasturteko 3. astean bete eta entregatu beharrekoa (entrega errazteko, eGelan ere eskuragarri dago).

6. Taula

III. Moduluko talde-fitxa

III. MODULUKO DILANAREN TALDE-FITXA			
TALDEAREN IZENA:			
1. KIDEA		2. KIDEA	
IZENA:		IZENA:	
ABIZENAK:		ABIZENAK:	
GRADUA:		GRADUA:	
MAILA:		MAILA:	
TALDEA:		TALDEA:	
E-MAILA:		E-MAILA:	
3. KIDEA		4. KIDEA	
IZENA:		IZENA:	
ABIZENAK:		ABIZENAK:	
GRADUA:		GRADUA:	
MAILA:		MAILA:	
TALDEA:		TALDEA:	
E-MAILA:		E-MAILA:	
HAUTATUTAKO FILMA			
IZENBURUA:			
HAUTAKETAREN ARRAZOIAK ETA III. MODULUKO IRAKASGAIEKIN DUEN LOTURA:			